



Gezala
AUDITORIUMA

Lezo

K u l t u r h o t s a k

Orratx! Antzerki Taldea ▶ ZOZOAK BELEARI IPURBELTZ

abenduak 16 ostirala 22:30etan eta abenduak 17 larunbata 19:00tan >> GEZALA AUDITORIUMEAN

ZOZOAK
BELEARI
IPURBELTZ

“Zozoak beleari ipurbeltz” du izenburu eta bost zati edo atalez osatua dago; lehenengo hirurak hiru gizona koren bakarriketa bana dira, laugarrena emakume batek aurrekoez egiten duen laburpen gogoeta, eta azkenekoa berriz, bost emakumek gizona koei buruz izango duten solasaldia da.

Antzezlanak Orratxek moldatu du handik eta hemendik bildu eta jositako antzezlan ttikiekin. Gehienak “El club de la comedia”ko autoreenak dira, egile batenak baino gehiagorenak alegia.



2006ko
urtarrilaren 8an

Maite zaitut


Lezoko Unibertsitateko
Udria

Lezoko zine agenda

ABENDUA

DICIEMBRE

2005



Gezala


AUDITORIUMA

800
zine ma

Osteguna / Larunbata 2,00 €

Igandea 1,00 €

OSTEGUNA • jueves



SANG WOO Y SU ABUELA

Sang Woo hiri handi batean jaiotako 7 urteko haurra da. Bere amona mutua da eta bere bizitza osoa herrixka txiki batean bizi izan da. Arrazoi ezberdinak medio, San Wook bere amonarekin igaro beharko du denboraldi bat. Amona eta hauraren artean eraikitzen doan harremanak haurra aldaraziko du, materialtasunaren aurkako edota naturaren aldeko baloreen bidez. Laburtuz, munduko amona guztiei omenaldia. 2002ko Donostiako zinemaldian zuzendari berria moduan aipamen berezia egin zioten Lee-ri.

2002, Hego Korea 80 min. Jeong-hyang Lee.
Eul-boon Kim, Seung-ho Yu, Hyo-hee Dong.



M. EL VAMPIRO DE DUSSELDORF

Maniako bat Dusseldorfeko kaleetan beldurra ereiten ari da: umeak bahitu eta hiltzen ditu! Guztiontzat oso ezaguna izango den Edvard Grieg konposatzailearen abesti itogarri bat izango da giltzarri pelikularekin bilakaeran. Halere, azpimarragarriena Peter Lorreren lana da. Nahiz eta hemen protagonista funtzioak dituen, zinemaren historian bere lekua izarren ondoan du: "Casablanca", "El halcón maltés" edo "Arsénico por compasión" bezalako filmetan ez da protagonista baina bai luxuzko laguntzaile bat.


1931, Alemania 99 min. Fritz Lang.
Peter Lorre, Ellen Widmann, Inge Landgut, Otto Wernicke.



EL LADO OSCURO DEL CORAZÓN (2. zatia)

Oliverio norabiderik gabeko poeta berarentzat ideala den emakumearen bila darrai hamar urte ondoren. Bilatze horretan Miranda azaltzen da. 'Aingira' deitzen diote, musu ematen zaionean elektrizatu egiten da bere behatzen artean bonbilla bat pizteraino. Halere, harremana aurrera doan heinean neskak 'formalizatze' eskaera egingo ote dionaren beldur beste emakume bat ezagutuko du: Alejandra. Aurreko zatia bezain magikoa eta polita Subielaren serie honetako bigarren filmea.


2001, Argentina, Espainia 112 min. Eliseo Subiela.
Dario Grandinetti, Ariadna Gil, Nacha Guevara, Sandra Ballesteros.



CAPTURING THE FRIEDMANS

Estatu Batuetako klase ertaineko familia baten istorioa kontatzen da hemen. Egun batean aita eta seme gazteena atxilotzen ditu polizia bereak diren etxean egindako bideoak frogatzen hartuta. Arrazoia: pederastia akusazioa. Ah! ez da pelikula bat. Benetan gertatutako istorioa dokumental formatuan kontatua. Ez pentsa irudi morbosorik ikusiko duzunik, baina, gai honi buruz tratamendu serioa ikusi nahi baduzu, behingoz bederen, hau da zure dokumentala. Sundancen, 2003an, epaimahaiaren sari nagusia eman zioten.

2003, EEBB 107 min. Andrew Jarecki.
Dokumentala.





TIERRA y LIBERTAD

Espainiako gerra zibilari buruz asko idatzi eta grabatu da. Ken Loachen ibilbide artistikoa ezagututa, gai hau ezin zuen ukitu gabe utzi. Koprodukzio oso interesgarria bilakatu zen honako hau, espainiako gerra zibilaren ikuspegia nazioarteko jende ezberdinen ikuspuntutik, eta zehazki Loachen zuzendaritzapean, egin izanak beste kutsu bat ematen baitio gaiari. Cannesen, Europear akademian, Goyetan, Cesarretan, aitortua eta ondorioz hainbat sari jasotako pelikula.

1995, EB, Espainia, Alemania, Italia 105 min. Ken Loach.
Ian Hart, Rosana Pastor, Iciar Bolain, Tom Gilroy.


LARUNBATA • sábado



1. EL CASO BOURNE
2. EL MITO BOURNE

2 emanaldi

Ikus oharra
hurrengo orrian



FUCKING AMAL

Joan den urtean Eskandinabiako zinemari eskaini genion zikloan oso ongi txerta zitekeen pelikula hau. Bere momentuan ez zen posible izan eta orain aukera ez da bazterrean utzi nahi izan. Suedian ere zine 'freskoa' egiten badakitela frogatzen du pelikula honek. Nerabezaroan murgilduta dabilzan gaztetxoaren istorioak baina helduentzako kontatuak. Dogma izeneko mugimenduaren eragina somatu daiteke propioki mugimendu horretan kategorizatu ezin bada ere.

2002, Suedia 89 min. Lukas Moodysson.
Alexandra Dahlström, Rebecka Liljeberg, Erica Carlson, Mathias Rust.

EZ DA ZINE EMANALDIRIK IZANGO
ANTZERKIA

Orratx! Antzerki Taldea
"ZOZOAK BELEARI IPURBELTZ"

EMANALDIRIK EZ


EMANALDIRIK EZ



HIRUKIAK (Pinotxo eta Ahatetxo itsusia)

Hirukien gaurko bi abenturak ez dira nolanahikoak. Azken aldian ikusi ditugun abenturei jarraiki, oraingoan ere, jada ipuin unibertsalak bilakatu diren Pinotxo eta Ahatetxo itsusiko pertsonaiekin ibiliko dira beren bihurrikeriei bide egiten. Bai Pinotxori, bai ahatetxo itsusiari bere laguntza eskainiko diete hiru ahizpatxoak eta bakoitzari bere arazoak konpontzen lagunduko diete.

2003, Catalunya 60 min. Hainbat
Marrakzi bizidunak.



ASTERIX ETA ZESARREN USTEKABEA

Obelix guztiz maitemindua dago Falbala neska ederraz. Loreak emateko asmoarekin bere etxera hurbiltzen denean mutil-lagunaren besoetan topatuko du. Arratsalde batez biak paseo erromantiko bat egitera ateratzen dira. Erromatarrek atxilotuko egingo dituzte eta Saharara bidali. Asterix eta Obelixen zeregina izango da haien atzetik joan eta erromatarren eskuetatik askatzea. Behin ere aspertzen ez gaituzten bikote 'astotxo' hauen abentura berria!

2003, Frantzia 75 min. Goscinný & Urdezo.
Marrakzi bizidunak



ILARGIRA ETA XAGUXARROSKI KONTEA


Txirri, Mirri eta Txiribiton izango dira ziurrenik euskal pailazo zaharrenetakoak eta ezagunenetakoak. Belaunaldi ezberdinak beren emanaldi umoretsuekin denbora atseginak pasatukoak dira. Gaurko proiektzioan, beren bi abentura berri ikusi ahal izango ditugu: *Ilargia eta Xaguxarroski kontea*. Lehenengo abenturak ilargirako bidaiarekin zerikusia duela ziur, baina bigarrenak? Drakularekin loturarik ba ote?

2003, EH 60 min. Mirri eta Txiribiton.
Mirri eta Txiribiton.

HIP HOP EGUNA

* LARUNBATA 17 TAILERRAK ETA KONTZERTUA

* IGANDEA 18 PELIKULA ETA KOLOKIOA



BAGDAD RAP

Rap eta hip-hop erritmoetan oinarritutako kaleko lengoia zuzena, lizuna eta kontzesiorik gabeko letrak erabiliko dira Irakeko gerraren bidetarako salatzen. Arturo Cisneros, musika ekoizleak eta zinegileak, Bagdadera egin behar izan zuen bidaiak bere taldearekin Ipamerikarrek okupatutako herrialdeko egunerokotasuna nola den kontatzeko. Zeharkako kaltetuei aurpegia jartzea izan da bere helburua eta horretarako Espainiar rap abeslari hobereenen laguntza izan du.

2004, Espainia 75 min. Arturo Cisneros Samper.
Dokumentala.

ABENDUA - diciembre

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 1	22:00	SANG WOO Y SU ABUELA
LARUNBATA 10	20:00	EL CASO BOURNE
2 EMANALDI	22:15	EL MITO BOURNE
IGANDEA 4	16:30	HIRUKIAK (Pinotxo eta Ahatetxo itsusia)
OSTEGUNA 8	22:00	M. EL VAMPIRO DE DUSSELDORF
LARUNBATA 10	22:00	FUCKING AMAL
IGANDEA 11	16:30	ASTERIX ETA ZESARREN USTEKABEA
OSTEGUNA 15	22:00	EL LADO OSCURO DE CORAZÓN (2. ZATIA)
LARUNBATA 17	19:00	ORRATXI! ANTWERKI TALDEA "Zozoak Beleari Ipurbeltx"
IGANDEA 18	16:30	ILARGIRA ETA XAGUXARROSKI KONTEA
HIP HOP EGUNA	19:00	BAGDAD RAP
OSTEGUNA 22	22:00	CAPTURING THE FRIEDMANS
OSTEGUNA 29	22:00	TIERRA Y LIBERTAD


AUDITORIUMA

Gezala

BOURNE, JASON BOURNE! 2 EMANALDI

Robert Lundlumen best sellerren irakurleak ongi ezagutzen du Jason Bourne. Jada, idazle horrek idatzi dituen hiru libururen protagonista da. Nazioarteko espioitza korapilo batean oinarritzen da istorioa eta sortzen duen ekintza erritmoa ia jasangaitza izatera iristen da. Halere, ezin esan daiteke ekintza zinearen barnean kokatzen den filmea denik, zine beltzaren osagai batzuk baititu. Bestalde, hirugarren zatirik ikusteko aukerarik izango ote dugu? Ba dirudienez bai! 2007rako hirugarren zati bat iragarria dago.


Lezon larunbatek ematen duten aukera aprobatxatu eta biak batera ikusteko aukera eskaini nahi izan dugu. Hortaz, larunbatean 20:00etan lehen zatia ikusi ahal izango da eta 22:00etan bigarrenkoa. Bien artean mokadutxo bat jan nahi duenak denbora gehiegirik ez baino aukera izango du. Bestalde, bi proiektzioetara ezin baduzu etorri ez zaitez gehiegi kezkatu, bietako edozein aparte ikusita ere pelikula baten osotasuna dute eta ez zara istorioan galduko. Beraz, abentura zalea bazara ez ezazu pelikula hau ikusteko aukera galdu eta har ezazu betekada atsegina!



EL CASO BOURNE

Ezer gogoratzen ez duen pertsona bat italiar arrantzale batzuk erreskatatzen dute. Soinean bost bala bizkarrean eta suitzar banku bateko kontu korrente zenbakia hankean. Ez du ez nortasunik, ez iraganik baina badirudi trebetasun batzuen jabe dela: hizkuntzak ikasteko gaitasuna, arte martzialak, autodefentsa nozioak,... Dagoeneko, pelikularen gaiaren nondik norakoa imajina dezakezu gutxi gora-behera eta zinemari ekarpen berririk egiten ez badio ere azter ezazu nola egin duten pelikula.

2002, EEBB, Alemania 119 min. Dog Liuman.
Matt Damon, Franka Potente, Chris Cooper, Clive Owen.



EL MITO BOURNE

Bigarren zati honetan ere Matt Damon eta Franka Potentek erreplikatzeko protagonista lanetan. Azken abenturatik ezkutuan bizi izan dira biak hiriz hiri mugitzen. Edonork egindako begirada arraroa, berarentzako ez den dei batek,... edozerk lekuz aldatu beharra eragiten die. Aurreko abentura atzean utzi zutela uste bazuten ere, seinale guztiak aurkakoa diote.

2004, EEBB, Alemania 108 min. Paul Greengrass.
Matt Damon, Franka Potente, Brian Cox, Julia Stiles.